

DANTZA

Zenbait dantza motek zerikusi handia dute lankidetza-jolasekin. Izan ere, lankidetza, erabaki-hartzea eta guztien partaidetza bultzatzen dute.

Mugimenduko jarduera gisa, dantza autoestimua lantzeko elementu bat izan daiteke; dantzaren bidez, haurrek beren gorputza ezagutzen eta onartzen ikasten dute, beren gaitasunak, aukerak eta mugak ikusiz.

Era berean, dantzak besteen gaitasunak, aukerak eta mugak ikusteko eta onartzeko balio du. Alegia, haurrak “desberdintasunak” errespetatzen ikasten du, aberastu eta gizatiarrago egiten gaituztelako.

Dantzaren bidez, haurrek ongi pasatzen dute eta besteekin harreman aberatsak eta atseginak eraikitzen dituzte.

Hala ere, gorputzean eta mugimenduan oinarritako hezkuntza ez da pertzepzio eta mugimenduetara bakarrik mugatzen. Aitzitik, dantzaren bidez sentimenduak eta pentsamenduak adieraz daitezke. Hortaz, jolasak, adierazpenak eta komunikazioak garrantzi handia dute. Hiru elementu horiek baliabide metodologiko nagusiak bihurtzen dira; jolasa, adierazpena eta komunikazioaren bidez, izan ere, haurrek arauak eta rolak bereganatzen dituzte, lankidetza eta elkartasuna eskatzen duten egoeretan parte hartzen dute eta talde-estrategiak garatzen dituzte.